

Nafarroako Gobernua Hezkuntza Departamentua	 Gobierno de Navarra Departamento de Educación	
GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOETARAKO SARBIDE PROBA		
OSASUN ZIENTZIETAKO BERARIAZKO ZATIA		
2019ko DEIALDIA		
<i>31/2019 EBAZPENA, otsailaren lekoa</i>		
23-05-2019	BIOLOGIA	


KALIFIKAZIOA		
DEITURAK		
IZENA		
NANa/ANTa		


1. Arnasketa prozesuei dagokienez: (2 puntu)

- Idatz ezazu arnasketa zelularraren erreakzio orokorra. (0,5 puntu)
- Zer da animalien gas trukea? Zein da gas trukearen arrazoia? Adierazi zein ezaugarri izan behar dituzten gas trukea egiten den azalek. (0,5 puntu)
- Adierazi zer diferentzia aurkitzen dituzten ingurune urtarreko animaliek eta ingurune lehortarrekoek arnasketarako oxigenoa lortzeko orduan. (0,5 puntu)
- Adierazi zer arnasketa mota duten (BRANKIAK, BIRIKAK, TRAKEAK, LARRUAZALAREN BIDEZKO ARNASKETA) animalia talde hauek: (0,5 puntu)
 - Intsektuak:
 - Arrainak:
 - Anfibioak:
 - Hegaziak:
 - Anelidoak:

Nafarroako Gobernua Hezkuntza Departamentua	 Gobierno de Navarra Departamento de Educación
GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOETARAKO SARBIDE PROBA	
OSASUN ZIENTZIETAKO BERARLAZKO ZATIA	
2019ko DEIALDIA	
31/2019 EBAZPENA, otsailaren 1ekoa	
23-05-2019	BIOLOGIA

2. Ezarri izena gezien bidez adierazitako zelulen atalei? (1 puntu)
- A. Zelula eukariotoak ala prokariotoak dira? Arrazoitu ezazu erantzuna. (0,25 puntu)
- B. Animalia-zelula ala landare-zelula dira? Arrazoitu ezazu erantzuna. (0,25 puntu)
- C. Nutrizioari dagokionez, adierazi animalia-zelulen eta landare-zelulen arteko diferentziak. (0,5 puntu)




Nafarroako Gobernua Hezkuntza Departamentua	 Gobierno de Navarra Departamento de Educación	
GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOETARAKO SARBIDE PROBA		
OSASUN ZIENTZIETAKO BERARIAZKO ZATIA		
2019ko DEIALDIA		
<i>31/2019 EBAZPENA, otsailaren 1ekoa</i>		
23-05-2019	BIOLOGIA	

3. Animalien ehunei eta organoei dagokienez, erantzun galdera hauei:

- A. Sailkatu animalien lau ehun-talde garrantzitsuenak, eta adierazi horietako bakoitzaren funtzioa. (0,8 puntu)
- B. Zein ehun motatan sartzen dira digestio-guruinak? Aipa itzazu digestio-guruin nagusiak; komentatu horietako bakoitzaren kokagunea eta funtzioa. (1,2 puntu)

Nafarroako Gobernua Hezkuntza Departamentua	 Gobierno de Navarra Departamento de Educación	
GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOETARAKO SARBIDE PROBA		
OSASUN ZIENTZIETAKO BERARIAZKO ZATIA		
2019ko DEIALDIA		
<i>31/2019 ERAZPENA, otsailaren 1ekoa</i>		
23-05-2019	BIOLOGIA	

4. Hiru alelo-formek (I^A , I^B , I^O) determinatzen dute odol taldeen herentzia
- Odol taldeen herentzia, kasu batzuetan, herentzia kodomitantea da; azaldu termino horren esanahia. (0.25 puntu)
 - Emakumezko bati odol analisisia egin diote eta emaitzak dio A odol taldekoa dela; adierazi zein genotipo izan ditzakeen eta azaldu genotipo horiek homozigotikoak ala heterozigotikoak izanen diren. (0.5 puntu)
 - Emakume horrek seme-alabak baldin baditu O taldeko gizon batekin, zehaztu zeintzuk izan daitezkeen haurren balizko fenotipoak eta genotipoak. (1 puntu)
 - Emakume horrek odol-transfusioa behar badu, zein taldeko odola ematen ahal diote? Arrazoitu ezazu erantzuna. (0.25 puntu)

Nafarroako Gobernua Hezkuntza Departamentua	 Gobierno de Navarra Departamento de Educación
GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOETARAKO SARBIDE PROBA	
OSASUN ZIENTZIETAKO BERARIAZKO ZATIA	
2019ko DEIALDIA	
<i>31/2019 EBAZPENA, otsailaren lekoa</i>	
23-05-2019	BIOLOGIA

5. Hautatu ondoko galdera bakoitzerako erantzun egokia. (2 puntu) (Oharra: ez da punturik kenduko erantzun okerrengatik).

- 5.1 Izaki bizidunak osatzen dituzten lau elementu kimiko garrantzitsuenak honako hauek dira:
 - A) Karbonoa, oxigenoa, fluorra eta nitrogenoa.
 - B) Karbonoa, oxigenoa, fosforoa eta nitrogenoa.
 - C) Karbonoa, oxigenoa, hidrogenoa eta nitrogenoa.
- 5.2 Zein dira izaki bizidunetan egiturazko funtzioa duten molekula organikoak?
 - A) DNA
 - B) Proteinak
 - C) Glukosa
- 5.3 Organismo diploide bat sexu bidez ugaltzen denean, prozesu hauetako bat egin beharko du; zein?
 - A) Mitosia
 - B) Partenogenesia
 - C) Meiosia
- 5.4 Fotosintesia honelako prozesu metaboliko bat da:
 - A) Anabolismoa
 - B) Katabolismoa
 - C) Bi erantzunak zuzenak dira
- 5.5 Animalia akuatikotan gehien dagoen ernalketa mota honako hauetako bat da:
 - A) Kanpo-ernalketa
 - B) Barne-ernalketa
 - C) Ernalketa mistoa
- 5.6 Adierazi izaki bizidun hauetatik zeinek duen zirkulazio aparatu irekia:
 - A) Anelidoak
 - B) Intsektuak
 - C) Arrainak
- 5.7 Landareen izerdi gordina garraiatzen da:
 - A) Zurezko hodietatik
 - B) Xilematik
 - C) Bi erantzunak zuzenak dira
- 5.8 Arrainen odolaren zirkulazioa:
 - A) Zirkulazio itxi sinplea da
 - B) Zirkulazio ireki sinplea da
 - C) Zirkulazio itxi bikoitza eta osatugabea da
- 5.9 Honako hauek osatzen dute animalia baten nerbio-sistema periferikoa:
 - A) Nerbio-sistema sinpatikoa eta zentrala
 - B) Nerbio-sistema somatikoa eta autonomoa
 - C) Nerbio-sistema autonomoa eta zentrala
- 5.10 Kontuan hartuta zein estimulua hartzen duen, gizakiaren entzumena da:
 - A) Mekanorrezeptorea
 - B) Kimiorrezeptorea
 - C) Erantzunetako bakar bat ere ez da zuzena